

Euskal AEko Administrazio Publikoen finantzaketa-premia 1.763 milioikoa izan zen 2015ean


BPGren % 2,5eko defizita ekarri zuen horrek 2015ean, hamarren bat gutxiago aurreko urtekoaren aldean

2015ean Administrazio Publikoen defizita (Euskal Administrazioa, lurraldean ezarritako Estatuko Administrazioa eta Gizarte Segurantzza) % 0,2 jaitsi zen, eta 1.763 milioi eurokoa izan zen, Eustatek landutako datuen arabera. Zehazki, Administrazio Publikoek 24.721 milioi euroko baliabide ez finantzarioak kudeatu zituzten 2015ean, Enplegu ez finantzarioak 26.484 milioi eurokoak izan ziren bitartean.

Euskal AEn, Administrazio Publikoen finantzaketa-premian izandako beherakada baliabide ez finantzarioak zerbait gehiago igo zirelako gertatu zen, enplegu ez finantzarioen aldean; hala, 2014an baliabideak % 0,8 gehitu ziren bitartean, enplegu ez finantzarioek % 0,7 egin zuten gora.

BPGri dagokionez, % 2,5ekoa izan zen defizita, hamarren bat gutxiago aurreko urtekoaren aldean. Eboluzio hori inguruko herrialdekoen antzekoa da. Hala, Estatu osoan BPGren defizita jaitsi egin zen 2014ko % 6,0tik 2015eko % 5,1era, eta Europar Batasuna-28 osoan BPGren % 3,0tik 2014an % 2,4ra jaitsi zen 2015ean.

1. grafikoa: Administrazio publikoen finantza beharren nazioarteko alderaketa (BPGaren %)



Iturriak: Eustat. Administrazio publikoen kontuak. SEC2010
EUROSTAT

Baliabide ez finantzarioen barruan, hauek dira partida adierazgarrienak: Kotizazio sozialak (baliabideen % 32,9), Ekoizpenaren eta inportazioen gainerako zergak (% 30,2) eta Errentaren, ondarearen... gainerako zergak (% 25,7). Aurreko urtearen aldean, azken horiek igo ziren gehien, % 1,7, hau da, 108 milioi euro; Kotizazio sozialak ere zerbait gehitu ziren 2014koen aldean, % 0,5; Ekoizpenaren eta inportazioen gainerako zergek, aldiz, % 1,4 egin zuten behera. Oro har, Baliabide ez finantzarioak 197 milioi gehitu ziren 2014aren aldean.

1. taula: Euskal AEko Herri Administrazioen baliabide-enplegu ez-finantzetakoak (milaka euro). 2015

	2014	2014/2013 (%)
Finantzazkoak ez diren baliabideak	24.720.693	0,8
Merkatuko ekoizpena eta azken erabilera propioarentzako ekoizpena	946.516	8,0
Merkatukoa ez den produkzioaren ziozko ordainketak	604.657	6,0
Ekoizpen eta inportazio zergak (kobratzekoak)	7.471.229	-1,4
Jabetzaren errentak	249.036	-0,5
Errenta, ondare eta abarren gainerako zergak	6.359.638	1,7
Gizarte-kotizazioak	8.138.032	0,5
Bestelako transferentzia arruntak	948.945	4,9
Kapitalzergak (kobratzekoak)	222.796	15,3
Inbertsiorako laguntzak (kobratzekoak)	48.611	-41,0
Bestelako kapital-transferentziak (kobratzekoak) (1)	-268.767	-3,3
Finantzazkoak ez diren erabilerak	26.483.904	0,7
Soldatuen ordainketa	6.680.329	2,3
Bitarteko kontsumoa	3.689.002	8,2
Dirulaguntzak (ordaintzekoak)	578.841	17,5
Produkzioaren gainerako beste zerga batzuk	32.354	6,6
Jabetzaren errentak	329.704	-17,8
Errentaren gainerako zerga arruntak (ordaintzekoak)	0	0,0
Espezieko gizarte-transferentziak ez diren gizarte-prestazioak	10.706.919	0,6
Gauzazko gizarte-transferentziak Merkaturan erositako ekoizpena	2.026.216	1,6
Bestelako transferentzia arruntak	650.064	-8,8
Kapital Eraketa Gordina	1.272.477	-16,3
Kapitaltransferentziak (ordaintzekoak)	492.881	-10,0
Ezfinantzetako aktibo ez ekoiztuen erosketa garbiak	25.117	64,8
Aurrezki garbia	-617.177	61,3
Finantzatzeko ahalmena(+) beharrezana(-)	-1.763.211	-0,2

(1) Barne ditu nekez lortuko den diru-bilketagatiko kapital-transferentziak

Iturriak: Eustat. Administrazio publikoen kontuak. SEC2010

Enplegu ez finantzarioak 26.484 milioi eurokoak izan ziren, hau da, 193 milioi gehiago 2014aren aldean. *Prestazio sozialak eta Gauzazko transferentzia sozialak: merkaturan eskuratutako ekoizpena* (hezkuntzako, osasuneko kontzertuak eta gastu farmazeutikoa hartzen ditu barnean) batura gastuaren % 48,1 da eta 100 milioi egin zuen gora aurreko urtearekiko, hau da, % 0,8. Soldatarik gabeko ordainsariak (gastuaren % 25,2) % 2,3 egin zuen gora eta Bitarteko kontsumoa (gastuaren % 13,9) da gehikuntzarik handiena izan

zuen partida, % 8,2, alegia. Bestalde, Kapital-eraketa gordinak (gastuaren % 4,8) % 16,3 egin zuen behera 2014arekiko, hau da, 247 milioi.

Ikuspegi **instituzionaletik**, Euskal AEn, Lurraldean ezarritako Estatuko Administrazioak 644 milioi euroko finantzaketa-gaitasuna lortu zuen 2015ean, 2014an baino % 5,1 gehiago, eta Lurraldean ezarritako Gizarte Segurantzak 2.031 milioi euroko finantzaketa-premia, % 1,4 gutxiago 2014aren aldean.

2. taula: Euskal AEko herri administrazioen aurrezki garbia eta finantza-gaitasuna (+) edo finantza-beharra (-) (milaka euro). 2015

	Finantzazkoak ez diren baliabideak	Finantzazkoak ez diren erabilerak	Aurrezki garbia	Finantzatzeko ahalmena(+) beharritasuna(-)
Herri Administrazioak	24.720.693	26.483.904	-617.177	-1.763.211
Estatuaren administrazioa + Gizarte Segurantza Lurralderatua	10.340.356	11.728.179	-1.220.498	-1.387.823
Estatuaren administrazioa Lurralderatua	2.359.291	1.715.636	802.973	643.655
Gizarte Segurantza Lurralderatua	7.981.399	10.012.877	-2.023.471	-2.031.478
Euskal administrazioak	16.625.935	17.001.323	603.321	-375.388
Eusko Jaurilaritza	9.789.695	10.228.610	8.891	-438.915
Araba/Álava	2.527.912	2.526.466	71.939	1.446
Bizkaia	7.891.919	7.914.314	255.779	-22.395
Gipuzkoa	5.094.825	5.010.350	266.711	84.475

Sartutako erakundeak, ikusi ohar metodologikoa 2015

Iturria: Eustat. Administrazio publikoen kontuak. SEC2010

Euskal Administrazioei dagokienez, finantzaketa-premia 2014ko 320 milioititik 2015eko 375 milioira igo zen, 55 milioi gutxiagoko saldoa, alegia. Eusko Jaurilaritzari dagozkion erakundeen multzoak 198 milioi eurotan murriztu zuen bere finantzaketa-premia, eta 439 milioi eurokoa izan zen 2015ean.

Arabako Foru eta Udal Administrazio osoan, saldo positiboak hobera egin zuen 11 milioi eurotan, 2014ko 10 milioiko saldo negatibotik 2015eko milioi 1eko saldo positibora; Gipuzkoa osoan ere, saldo positiboak 43 milioi egin zuen gora, eta 84 milioiko finantzaketa-gaitasuna lortu zuen 2015ean. Aitzitik, Bizkaia osoan, okerrera egin zuen saldoak: 2015ean 22 milioi euroko saldo negatiboa lortu zen, 2014ko 285 milioiko saldo positiboaren aurrean.

3. taula. Herri administrazioen azken eskaria. Euskal AE (milaka euro). 2011-2015

	2011	%	2012	%	2013	%	2014	%	2015	%
Herri administrazioen azken kontsumoko gastua	11.798.770	83,8	11.295.409	86,2	11.128.539	87,7	11.216.772	88,1	11.518.530	90,1
Herri administrazioen kapital finkoaren eraketa gordina	2.276.731	16,2	1.811.098	13,8	1.554.269	12,3	1.519.573	11,9	1.272.477	9,9
Barne eskari publikoa	14.075.501	100,0	13.106.507	100,0	12.682.808	100,0	12.736.345	100,0	12.791.007	100,0

Iturria: Eustat. Administrazio publikoen kontuak. SEC2010

Administrazio Publikoen **azken gastuaren egiturari**, Kapital Eraketa Gordinak gutxitzen jarraitzen du bere partaidetza Barne Eskari Publikoan; 2015ean % 9,9koa da, portzentajeazko 6,2 puntu gutxiago 2011az geroztik. Aitzitik, Azken Kontsumoko Gastua,

hau da, administrazioek ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenean egindako gastuaren baturak gehi etxebizitzak hornitzen dituzten merkatu-ekoizleek ekoiztutako ondasunen eta zerbitzuen eskuraketak (gauzazko transferentzia sozialak) handitu egin du bere partaidetza, 2011n % 83,8koa izatetik 2015ean % 90,1ekoa izatera.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62